


EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO  
HONDAKINEN INBENTARIO  
BATERATUA



**hondakinak**  
RESIDUOS

2003



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



**ingurumena.net**

*Gure esku dago*

*Está en nuestras manos*

Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila  
59.zk. 2006ko uztaila



# Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila

Ingurumeneko Esparru Programa Saila bildumako tituluak [www.ingurumena.net](http://www.ingurumena.net) helbide elektronikoan ikus ditzakezu.

- 29.zk. 2004ko otsaila. “2002ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Gasen Emisioen Inbentarioa”
- 30.zk. 2004ko martxoa. “2004ko Ekobarometro Soziala”
- 31.zk. 2004ko martxoa. “Euskadi nire autorik gabe. 2003. Euskal Udalerrietako Mugikortasun Iraunkorerrantz”
- 32.zk. 2004ko ekaina. “TOKIKO AGENDA 21. Ekintzaplanak martxan jartzeko gida”
- 33.zk. 2004ko ekaina. “TOKIKO AGENDA 21. Partehartzeko mekanismoak martxan jartzeko gida”
- 34.zk. 2004ko ekaina. “Ore eta paperaren sektoreko enpresen ingurumen-ekarpina garapen iraunkorari. 2004-2006”
- 35.zk. 2004ko uztaila. “Hondakin arriskutsuen kudeatzaileen sektoreko enpresen ingurumen-ekarpina garapen iraunkorari”
- 36.zk. 2004ko iraila. “Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasun iraunkoraren udal-planak egiteko gida praktikoa”
- 37.zk. 2004ko iraila. “Burdin Galdaketaren, ez-burdinazko Galdaketaren eta ez-burdinazko Metalurgiaren Sektoreko enpresen Garapen Iraunkorari egiten dioten Ingurumen-ekarpina (2004- 2006)”
- 38.zk. 2004ko urria. “Tokiko Agenda 21. Aurrera egiteko komunikatzea. Prozesuan komunikatzeko estrategien eskuliburua”
- 39.zk. 2004ko otsaila. “Iraunkortasuna aintzat hartzen duten jaiak”
- 40.zk. 2004ko otsaila. “Euskal Autonomia Erkidegoko 2004ko Ingurumen Adierazleak”
- 41.zk. 2004ko azaroa. “2003ko Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioen inbentario”
- 42.zk. 2004ko abendua. “Euskal Autonomia Erkidegoan Plan eta Programen Ingurumeninaktuaren Ebaluazio Bateratua Aplikatzeko Gida”
- 43.zk. 2005ko urtarrila. “Euskal Autonomia Erkidegoko Aztarna Ekologikoa”
- 44.zk. 2005ko apirila. “Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren kanpo-kostuak. MUGIKOST’05”
- 45.zk. 2005ko ekaina. “Gazteak aldatetaren alde. Kontsumo iraunkorerrako hezkuntzako esku-liburua”
- 46.zk. 2005ko apirila. “Beira-, Zeramika- eta Karesektoreko enpresen Garapen iraunkorari egiten dioten ingurumen-ekarpina 2005-2006”
- 47.zk. 2005ko Maiatza. “Laburpena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumenaren Egoera 2004”
- 48.zk. 2005ko apirila. “Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruan eta biomasan dagoen karbono organikoaren inbentarioa”
- 49.zk.2005ko apirila. “Aalborgeko konpromisoak. Euskal udalerriek Europako iraunkortasunari egindako ekarpina”
- 50.zk. 2005ko maiatza. “50 Ingurumen Jardunbide Egoki, Udalerriak Eredu”
- 51.zk. 2005ko maiatza. “Mugikortasunaren aldeko 250 ekintza euskal udalerrietan (Ekinean mugikortasun iraunkoraren bidean)”
- 52.zk. 2005ko uztaila. “2004ko Industria Ekobarometroa”
- 53.zk. 2005ko iraila. “Berotegi-Efektua eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioa Euskal Autonomia Erkidegoan 2004”
- 54.zk. 2005ko urria. “Gainazalak Tratatze Sektoreko enpresen Garapen Iraunkorari egiten dioten Ingurumen-ekarpina 2005-2006”
- 55.zk. 2005ko azaroa. “Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan. 2005ko Ingurumen-Adierazleak”
- 56.zk. 2006ko apirila. “Nekazaritza eta Ingurumena Euskal Autonomia Erkidegoan 2006ko Adierazleak”
- 57.zk. 2006ko maiatza. “IPPC Zuzentarauaren Eraginpean dauden Instalazioetan Ingurumen-baimen Integratua Eskatzeko gida”
- 58.zk. 2006ko uztaila. “Europako Batasuneko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako jardunbide Egokiei buruzko Eskuliburua”
- 59.zk. 2006ko uztaila. “Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinen inbentario bateratua. 2003”

© IHOBE 2006

**ARGITARATZAILEA:** Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, IHOBE, S.A.

**EDUKIA:** Dokumentu hau Ihobe-rentzako egin da, U.T.E., Inguru Kontsultoreak eta C.I.M.A.S. Innovación y Medio Ambiente- ren laguntzarekin

**DISEINUA:** Dual<sup>sl</sup> – Comunicación & Diseño


**ITZULPENA:** Elhuyar

**LEGE GORDAILUA:** VI-311/06

Paper birziklatuan eta klororik gabe zurituan inprimatua

## ESKUBIDE GUZTIAK ERRESERBATUTA

Debekatuta dago publikazio hau erreproduzitzea, informazioa berreskuratzeko sistemetan gordetzea eta publikazio honen zati bat transmititzea, erabilitako bitarteko a edozein dela ere (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa, etab.), jabetza intelektualaren eskubideen titularraren eta editorearen idatzizko baimenik gabe.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
HONDAKINEN INBENTARIO BATERATUA

2003



# Aurkibidea

AURKEZPENA.....	5
<b>1. SARRERA</b> .....	6
<b>2. METODOLOGIA</b> .....	7
<b>2.1</b> Hondakin ez-arriskutsuen inbentarioa egiteko prozedura.....	7
<b>2.2</b> Hondakin arriskutsuen inbentarioa egiteko prozedura.....	8
<b>2.3</b> Hiri-hondakinen inbentarioa egiteko prozedura.....	8
<b>2.4</b> Inbentario bateratua egiteko prozedura.....	9
<b>3. AZTERKETA OROKORRA</b> .....	10
<b>3.1</b> Hondakin-mota bakoitzaren kantitatea eta ekarpena.....	10
<b>3.2</b> Lurraldeko sorkuntza.....	12
<b>3.3</b> Kudeaketa aplikatu mota.....	14
<b>4. EHZ KATEGORIEN ARABERAKO AZTERKETA</b> .....	17
<b>4.01</b> EHZ 01: Meatoki eta harrobietako hondakinak.....	17
<b>4.02</b> EHZ 02: Nekazaritzako elikagaigintzako hondakinak.....	18
<b>4.03</b> EHZ 03: Zuraren eta paperaren industriako hondakinak.....	19
<b>4.04</b> EHZ 04: Ehungintzako eta larrugintzako hondakinak.....	21
<b>4.05</b> EHZ 05: Petrolioaren, gas naturalaren eta ikatzaren industriako hondakinak.....	22
<b>4.06</b> EHZ 06: Prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak.....	23
<b>4.07</b> EHZ 07: Prozesu kimiko organikoetako hondakinak.....	25
<b>4.08</b> EHZ 08: Pinturen, bernizen eta tindagaien hondakinak.....	27
<b>4.09</b> EHZ 09: Argazkigintzako hondakinak.....	29
<b>4.10</b> EHZ 10: Prozesu termikoetako hondakinak.....	30
<b>4.11</b> EHZ 11: Gainazalen tratamenduko eta estaldurako hondakinak.....	33
<b>4.12</b> EHZ 12: Metalen eta plastikoen moldaketako hondakinak.....	34
<b>4.13</b> EHZ 13: Sukaldekoak ez diren olioien hondakinak.....	36
<b>4.14</b> EHZ 14: Disolbatzaile-hondakinak.....	38
<b>4.15</b> EHZ 15: Zapien, ontzien eta babes-jantzien hondakinak.....	39
<b>4.16</b> EHZ 16: Beste kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak.....	40
<b>4.17</b> EHZ 17: Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak.....	43
<b>4.18</b> EHZ 18: Medikuntzako edo albaitaritzako hondakinak.....	45
<b>4.19</b> EHZ 19: Hondakinak edo ura tratatzeko instalazioetako hondakinak.....	46
<b>4.20</b> EHZ 20: Hiri-hondakinak.....	48
<b>5. ONDORIOAK</b> .....	50

## Oharra

Inbentario honetako tauletako eragiketetan (batuketak eta ehunekoak) detekta daitezkeen itxurazko errore aritmetikoak honen ondorioz gertatu dira: batugai bakoitzaren zifra hamartar guztiak hartu dira kontuan, kasu bakoitzean bistaratu diren zifra hamartarren kopurua kontuan hartu gabe. Gure ustez, horrela bermatzen da eragiketa bakoitzaren emaitza ez txikitzea batugai bakoitzaren aurkezpenean egindako biribilketaren ondorioz.



## Aurkezpena

Desde que se inició la política para la protección del suelo en la Comunidad Autónoma del País Vasco la Viceconsejería de Medio Ambiente, a través de la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, S.A., ha venido editando guías metodológicas y técnicas de aplicación en las investigaciones de suelos contaminados. La realización de numerosas investigaciones, a lo largo de estos años, ha puesto de manifiesto la utilidad de dichos instrumentos técnicos y ha permitido acumular una experiencia importante acerca de la problemática ambiental que suponen los suelos y las aguas subterráneas contaminados.

El conocimiento tanto de este problema ambiental como de su dimensión ha propiciado que la Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 tenga como primera meta garantizar que los suelos estén limpios, e incluso se ha marcado como objetivo prioritario mejorar la calidad de los mismos, hasta el punto de adquirir compromisos concretos de recuperación de suelos.

La aprobación de la ley 3/98 de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco permitió sentar las bases para tratar este problema y la reciente aprobación de la ley 1/2005 de 4 de febrero para la Prevención y Corrección de la contaminación del suelo de la Comunidad Autónoma del País Vasco va a dar cobertura legal a las actuaciones que se lleven a cabo en relación con esta materia.

En relación a lo indicado se ha elaborado en colaboración con el Departamento de Industria, Comercio y Turismo la presente “*Guía Técnica de evaluación y gestión de la contaminación del suelo por tanques de almacenamiento subterráneo*”. La constatación de que dichos depósitos constituyen los principales focos de la contaminación del suelo ha motivado que esta nueva guía se centre exclusivamente en ellos. Ahora bien, la guía se ha nutrido de los documentos ya editados para establecer los criterios a seguir en relación a los distintos aspectos técnicos y ambientales correspondientes.

Además, la guía suministra información acerca de las principales medidas de prevención de la aparición de nuevos casos de contaminación así como criterios ambientales para la implantación de nuevos tanques subterráneos. Con ello se pretende disponer de un documento técnico eficaz que de acuerdo con los objetivos de la ley evite nuevos casos de contaminación del suelo y facilite la evaluación y la gestión de la contaminación ya ocasionada en el suelo y el agua subterránea.



**Esther Larrañaga**

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu  
Sailburua



# 1. Sarrera

*Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorraren –otsailaren 27koa– 70. artikuluan zehazten da hondakin-planak egin behar direla, besteak beste, gure lurraldean hainbesteko eragina duen alor horretan estrategiak garatzen laguntzeko.*

Horretarako, hondakinen inbentario oso eta fidagarriak izan behar dira, planek oinarri sendo eta errealak izan ditzaten.

Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak inbentario horiek sustatu ditu, eta kasu bakoitzean inbentarioaren edukia eta maiztasuna dagokion hondakinaren egoera zehatzaren (arriskutsua, geldoa, hirikoa) arabera egokitu ditu.

Lehenbiziko urrats horien ondorioz, hondakinen arloko politika instituzionalak ikuspegi orokorra izan behar du, ez-segmentatua, kontuan hartuta hainbat atal (pilak, kartoia eta papera, etab.) gainjarri egiten direla eta informazioa lortu eta ematen zailtasun handiak daudela.

Orain, 2003ko hiru hondakin-inbentarioak ditugunez (*Hiri-hondakinen inbentarioa, Hondakin arriskutsuen inbentarioa eta Hondakin ez-arriskutsuen inbentarioa*), ontzat eman da denbora-tarte hartako **Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinen lehen inbentario bateratua** egitea.

Inbentario honetatik kanpo eraikuntza- eta eraipen-hondakinak (EEH) besterik ez dira geratu, oraingoz horiek zenbatesteko zailtasunak baititugu. Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen diren mota horretako hondakinei dagokienez, urtean 1.000.000-1.500.000 tona sortzen direla zenbatsten da.

*Nekazaritza, baratzezaintza, basogintza, ehiza eta arrantzako* (EHZ 020100) hondakinei dagokienez, inbentario honetan *plastikozko hondakinak (bilgarriak izan ezik)* (EHZ 020104) eta *substantzia arriskutsuak dituzten nekazaritzako hondakin kimikoak* (EHZ 020108) bakarrik izan dira kontuan. Ez dira zenbatetsi EHZ 02 01 06 kodean definitutako hondakinak (animalien gorozkiak, gernua eta simaurra –usteldutako lastoa ere barne–, gaika bildutako eta sortzen diren tokitik kanpo tratatzen diren efluenteak), ezta EHZ 02 01 07an definitutakoak (basogintzako hondakinak) ere; izan ere, oso zaila da horiek kontabilizatzea eta hondakin gisa definitzea (*Opinion of Advocate General STIX-HACKL, Case C-416/02, Almeriako Vera eskualdean*).



## 2. Metodologia

### 2.1 Hondakin ez-arriskutsuen inbentarioa egiteko prozedura

*Hondakin ez-arriskutsuen inbentarioa* egiteko metodologian eragina izan dute industria-sektore bakoitzerako erabilitako informazio-iturriek (EJSN).

Hala, enpresa askoren kasuan –gehienak ETEak–, *Euskal Estatistika Institutuaren (EUSTAT)* zerbitzuetara jo behar izan da, laginketa egin eta, gero, sortutako hondakin-kantitatea estrapolatu ahal izateko.

Nolanahi ere, hondakin ez-arriskutsuen sorreran garrantzi handiena duten sektoreetan eta Administrazioarekin harreman handiena dutenetan (borondatezko hitzarmenen bidez, ingurumen-deklarazioaren bidez, etab.), datuak zuzenean lortu dira.

Metodologiak hainbat fase izan ditu:

#### I. EJSN, zuzeneko informazioarekin

Erabil daitezkeen iturriak aztertuta, zuzeneko informazio osatua duten EJSNak definitu dira:

- EJSN 211: Paper-pastaren, paperaren eta kartoiaren fabrikazioa.
- EJSN 23: Koke-labeak, erregai-finketa eta erregai nuklearren tratamendua.
- EJSN 244: Produktu farmazeutikoen fabrikazioa.
- EJSN 265: Zementuaren, karearen eta igeltsuaren fabrikazioa.
- EJSN 27: Metalurgia.
- EJSN 371: Txatarra eta metal-hondakinak birziklatzea, ibilgailuak zatikatzeko makinak zenbateteko.
- EJSN 50: Motordun ibilgailuen, motozikleten eta ziklomotorren salmenta, mantentzea eta konponetzea, eta ibilgailu motordunetarako erregaien txikizkako salmenta, pneumatiko erabilien sorrera zenbateteko

- EJSN 41: Uraren bilketa, arazketa eta banatzea, HUA instalazioetatik datozen lohiak zenbateteko.

#### II. Gainerako EJSNak

Gainerako EJSNei dagokienez, batez ere hiri-hondakinaren pareko hondakinak dituzten zerbitzuen sektoreko jarduerak azterketatik kanpo geratzen dira –eta, beraz, hiri-hondakinaren inbentarioan biltzen dira– ; baita nekazaritza-jarduerari dagozkionak ere, sarreran aipatutako salbuespenak salbuespen –horiek Nekazaritza Sailak emandako informazioaren arabera zenbatetsi dira–.

Multzo honetarako (gainerako EJSNak), urrats hauek egin dira:

#### III. Laginaren tamainaren definizioa eta lagin-hautaketa

EUSTATEk hauek definitzeko kalkuluak egin ditu: aldakuntza-koefiziente onargarri bat edukitzeko aukera ematen duen lagin-tamaina adierazgarria, eta lurralde historiko bakoitzeko eta EJSN bakoitzeko gutxienez zenbat enpresari egin behar zaien bisita/inkesta. Hala, zenbatetsi zen 2003ko *Hondakin ez-arriskutsuen inbentarioa* egiteko hainbat jarduera-sektoretako 300 enpresarekin jarri behar zela harremanetan.

#### IV. Estrapolazioak

EUSTATEk diseinatutako laginaren kasuan, unibertso osorako estrapolazioak egin dira, laginaren hautaketan erabilitako metodo estatistikoari jarraiki. Gainerako enpresetarako, estrapolazioak egin dira lurralde historiko bakoitzean kontuan hartutako EJSN bakoitzean aritzen den langile-kopurua patroli gisa hartuta.

## V. Informazioa biltzea eta aztertzea

Informazio-iturrietatik lortutako datuak informatikoki bildu eta tratatu dira. Emandako informazioaren kalitatea ez da beti behar adinakoa izan; beraz, hainbat gauza egin behar izan dira, adibidez, EHZ kodeak (*Europako Hondakinen Zerrenda*) berriz esleitzea, unitateak bihurtzea, helburuetako zuzenketak, etab.

### 2.2 Hondakin arriskutsuen inbentarioa egiteko prozedura

Aurreko bost inbentarioak diseinatzeko (1998-2002) erabilitako metodologia berbera erabili da *Hondakin Arriskutsuen Inbentarioa* egiteko. Dena dela, hainbat irizpide aldatu behar izan dira 2003ko hiru inbentarioen artean (hondakin arriskutsuak, ez-arriskutsuak eta hirikoak) hondakinak behar bezala bereizteko.

Hondakin arriskutsuen *kudeaketak* hauen bidez sortzen duen informazioan oinarritu da metodologia:

- Hondakin arriskutsu bat garraiatzen den bakoitzean ekoizlearen eta kudeatzailearen artean egiten diren *kontrol- eta segimendu-dokumentuak*.
- *Olioen A eta B dokumentuak*, Euskal Autonomia Erkidegoko 259/98 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- *Kudeatzaileen urteko memoriak*, batez ere, autokudeatzaile direnenak, alegia, sortzen duten hondakinetak bat kudeatzeko baimena dutenak.
- Hondakin arriskutsuen inportazio- eta esportazio-informazioa, 1993ko otsailaren 1eko *Europako Kontseiluaren 259/93 Araudiari (EEE)* jarraiki –*Europako Batasunaren barneko, barnerako eta kanporako hondakinen garraioaren zaintza eta kontrolari buruzkoa*– eta horren ondorengo aldatketak.

Dokumentazioa behar bezala informatizatu ondoren, EHZ kodea esleitu zaio hondakin-lerro bakoitzari; irizpide komun eta homogeenak erabili dira, aztertu beharreko informazioaren fidagarritasuna eta konparagarritasuna bermatzeko.

Azkenik, gordetako datuak informatikoki behar bezala erabilia, inbentarioa osatzen duten taulak eta grafikoak lortu dira, eta hainbat doikuntza egin dira helburu hauekin:

- Transferentzia-zentroetan bi aldiz ez kontabilizatzea; izan ere, hondakin bakoitzarentzat dokumentu bana bete behar izaten dute sartzean zein irtetean.
- Transferentzia-zentroek bildutako hondakinei amaieran benetan aplikatzen zaien tratamendua determinatzea.
- Aurreko urteetan *Hondakin arriskutsuen inbentarioan* sartutako EHZ ez-arriskutsuen kodeak ezabatzea, hondakin-mota horrekin egiten den kudeaketa bateratua errespetatzeko. *Hondakin ez-arriskutsu industrialen inbentarioan* sartu dira hondakin horiek.

### 2.3 Hiri-hondakinen inbentarioa egiteko prozedura

2003ko *Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-hondakinen inbentarioa* egiteko, oinarritzko informazio-iturrietara jo da, adibidez:

- Foru-aldundiak.
- Eusko Jaurlaritza.
- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Zabortegiak/hondakin-kudeatzaileak

Erakundeek urrats desberdinak egin dituztenez informazio-tratamenduari buruz, lehenbizi irizpideak bateratu dira, bai hondakinen definizioari dagokionez, bai EHZ kodearen araberrako sailkapenari dagokionez.

Dagokien eragile guztiekin hitz egin ondoren, kode batzuk esleitzeko erabakia hartu da, eta hiri-hondakinen bi azpitalde handiak osatzen dituzten hondakinen zerrenda ezarri da:

- EH: Etxeko hondakinak.
- PHIKI: Hiri-hondakinen pareko diren hondakin instituzionalak, komertzialak eta industrialak.

Alderdi horiek argituta, erakunde bakoitzak emandako informazioa prozesatu da, eta bi aldiz kontabilizatzea saihestu nahi izan da batez ere.



## 2.4 Inbentario bateratua egiteko prozedura

*Hondakin ez-arriskutsu industrialen inbentarioaren, Hondakin arriskutsuen inbentarioaren eta Hiri-hondakin inbentarioaren informazioa bildu nahi da Euskal Autonomia Erkidegoko hondakin inbentario bateratuan, hiru inbentario partzialetatik lortu ezin den hondakin ikuspegi globala izateko.*

Inbentario hori egiteko urratsak, beraz, aipatutako hiru inbentarioak egiteko erabilitako metodologietan oinarritzen dira. Nolanahi ere, integrazio-prozesuan hainbat irizpide espezifiko hartu dira kontuan, besteak beste gai hauek konpontzeko:

- Aztertu beharreko parametroak hautatzea; izan ere, EJSN edo Kudeatzailearen jatorri geografikoa ez dira komunak inbentario guztietan.
- EHZ kode berbera inbentario batean baino gehiagoan erabiltzea; horretarako, jatorrizko informazio-iturriak berrikusi behar izan dira, hauek zehaztu ahal izateko:
  - Hondakin-sorta berbera da; beraz, inbentario bateko informazioa lehenetsi behar da, eta bestetik datorrena ezabatu behar da, bi aldiz ez kontatzeko.
  - Hondakin-sorta desberdinak dira; beraz, biak inbentario bateratuan sartu behar dira era integratuan.
- Bi modutara sailka daitezkeen hondakinei 'hondakin-mota' bat esleitzea, adibidez:
  - Etxeko hondakin arriskutsuak hiri-hondakin gisa zenbatu dira, lehenetsuna eman baitzaio

hiri-hondakin izaerari, hondakin arriskutsuen izaeraren gainetik.

- Hondakin arriskutsu gisa kontabilizatu dira zenbait hondakin geldo, geldotze-tratamendu egokia eman ondoren arriskutsuak ez izan arren.

*Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin inbentario bateratuaren lehenbiziko argitalpen honetan ez dira biltzen oso ezaugarri espezifikoak dituzten hainbat hondakin-multzo, adibidez, eraikuntza- eta eraispin-hondakinak. Hondakin horien bilakaeraren arabera, beste edizio batzuetan sartzea balioztatuko da.*

Aipatutako gai guzti horien ondorioz, *Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakin inbentario bateratuak* Euskal Autonomia Erkidegoan 2003an inbentariatutako hondakin ikuspegi orokorra eman nahi du, parametro hauen azterketaren arabera:

- *Hondakin-mota*, EHZ kodearen eta sailkapenaren arabera (hirikoa/arriskutsua/ez-arriskutsua).
- *Hondakinaren jatorria*, lurralde historikoen arabera.
- *Kudeaketa-mota*, definizio hauen arabera:
  - *Ezabatzea*, tratamendu fisiko-kimikoak, hondakindegian edo segurtasun-biltegietan uztea, edo bien arteko edozein konbinazio.
  - *Erraustea*, energia aprobetxatu gabe.
  - *Balorazio energetikoa*.
  - *Birziklatzea* edo materia balorizatzea, hondakinak betegarri gisa erabiltzea.

# 3. Azterketa orokorra

## 3.1 Hondakin-mota bakoitzaren kantitatea eta ekarpena

2003an, inbentarioan sartzen diren Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreek guztira 4.752.733 tona hondakin sortu dituzte, eta, horietatik:

- Bi heren (% 68,00) hondakin industrial ez-arriskutsuei dagozkie.
- Laurdena (% 24,23) hiri-hondakinei eta hiri-hondakinen parekoei dagokie.
- % 7,77 bakarrik dagokie hondakin arriskutsuei.

Metalen ekoizpen- eta eraldaketa-industriak (EHZ 10, 11 eta 12) sortzen du hondakin gehien (1.995.502 tona, % 41,99), batez ere altzairugintzako zepa eta hautsen, metalezko txirbilien eta galdaketako ar eta moldeen ondorioz.


Horien atzetik, aipatzekoak dira zuraren eta pape-raren industriako hondakinak (EHZ 03; 1.012.842 tona; % 21,31); horien antzeko ekarpena egiten dute hiri-hondakinek eta hiri-hondakinen parekoek (EHZ 20; 1.139.078 tona; % 23,97).

EHZ kodearen gainerako kategoriak ez dira % 1era ere iristen, hauek izan ezik:

- Lehen sektoreko hondakinak (EHZ 02; 114.108 tona; % 2,40), esne-enpresetan sortutako esne-gazurraren ondorioz, bereziki.
- Ontziak eta bilgarriak (EHZ 15; 110.374 tona; % 2,32), batez ere, hiri-hondakinei dagokien zatia-ren ondorioz.
- EHZ 16ren hondakinak (96.319 tona; % 2,03), prozesu metalurgikoetako estaldurak eta erre-gogorak, adibidez.

EHZ kodea (2 digitu)	Arriskutsuak		Ez-arriskutsuak		Hirikoak		Guztira	
	tona	%	tona	%	tona	%	tona	%
01: Meategiak eta harrobiak	6	% 0,02	25.620	% 99,98	0	% 0	25.626	% 0,54
02: Ekoizpen primarioa	5	% 0,004	114.103	% 99,996	0	% 0	114.108	% 2,40
03: Zurgintza eta papergintza	9	% 0,001	1.012.833	% 99,999	0	% 0	1.012.842	% 21,31
04: Larrugintza eta ehungintza	0	% 0	4.447	% 100	0	% 0	4.447	% 0,09
05: Petrolio finntzea	8.626	% 100	0	% 0	0	% 0	8.626	% 0,18
06: Kimika ez-organikoaren ind.	8.827	% 84,67	1.599	% 15,33	0	% 0	10.425	% 0,22
07: Kimika organikoaren ind.	10.109	% 46,75	11.516	% 53,25	0	% 0	21.624	% 0,45
08: Pinturak, bernizak eta tintak	6.330	% 75,10	2.099	% 24,90	0	% 0	8.429	% 0,18
09: Argazkigintza	804	% 99,89	1	% 0,11	0	% 0	805	% 0,02
10: Prozesu termikoaren ind.	157.919	% 10,03	1.416.991	% 89,97	0	% 0	1.574.911	% 33,14
11: Metalen tratam. eta estaldura	92.856	% 92,02	8.053	% 7,98	0	% 0	100.910	% 2,12
12: Metalak mekanizatzeko ind.	17.001	% 5,32	302.681	% 94,68	0	% 0	319.681	% 6,73
13: Olio erabiliak	20.788	% 100	0	% 0	0	% 0	20.788	% 0,44
14: Disolbatzaile erabiliak	2.224	% 100	0	% 0	0	% 0	2.224	% 0,05
15: Ontziak eta zapiak	6.166	% 5,59	40.292	% 36,51	63.916	% 57,91	110.374	% 2,32
16: Beste zenbait hondakin	8.178	% 8,49	88.141	% 91,51	0	% 0	96.319	% 2,03
17: Eraikuntza eta eraispena	24.128	% 100	0	% 0	0	% 0	24.128	% 0,51
18: Zerbitzu medikoak	1.306	% 96,53	47	% 3,47	0	% 0	1.353	% 0,03
19: Hondakinen tratamenduaren ind.	4.278	% 2,74	151.758	% 97,26	0	% 0	156.036	% 3,28
20: Udalekoak eta parekoak	0	% 0	51.560	% 4,5%	1.087.518	% 95,47	1.139.078	% 23,97
<b>GUZTIRA</b>	<b>369.559</b>	<b>% 7,78</b>	<b>3.231.740</b>	<b>% 68,00</b>	<b>1.151.434</b>	<b>% 24,23</b>	<b>4.752.733</b>	<b>% 100</b>

1. taula. 2003an Euskal Autonomia Erkidegoan kudeatutako hondakinen kantitatea, hondakin-motaren arabera (tona/urte).



1. irudia. EHZ kategoria bakoitzeko hondakin-motei dagokien banaketa (ehunekotan).


• Hondar-multzoak tratatzeko zentroetan sortutako hondakinak (EHZ 19; 156.036 tona; % 3,28); besteak beste, aipatzekoak dira hiriko hondakin-uren tratamenduko lohiak eta erabiltzen ez diren ibilgailuen kudeaketak osatzen duen zati txikia.

09) eta gainazalen tratamendu kimikoaren sektorean (EHZ 11).

Logikoki, horiez gain, beste hondakin batzuk ere badaude, adibidez, olio erabiliak (EHZ 13), disolbatzaile agortuak (EHZ 14) eta hondakin sanitarioak (EHZ 18); horietan, ia hondakin guztiak dira arriskutsuak dira.


Hondakin arriskutsuen ekarpena oso txikia izan arren hondakin guztizko osoan, asko sortzen dira ekoizpen-sektore batzuetan, adibidez, industria petrokimikoan (EHZ 05), kimika ez-organikoaren industrian (EHZ 06), argazkigintzan (EHZ

Prozesu termikoetako (EHZ 10) hondakin arriskutsuei dagokien zatia –Hondakin arriskutsuen inbentarioan hondakin iturri nagusietako bat da–



2. irudia. Lurralde historikoen eta hondakin-motaren arabeko hondakin-kantitateak (tona/urte).





**4. irudia.** Lurralde historikoetako EHZ kategoria bakoitzaren ekoizpenaren ehunekoak.

Horren arrazoia da Gipuzkoan prozesu termikoe-tako hondakin asko sortzen dela (EHZ 10; 768.739 tona; lurraldeko guztizkoaren % 44,90), eta Araban zuraren hondakin asko (EHZ 03; 331.398 tona; lurraldeko guztizkoaren % 37,34).


Hiri-hondakinak eta hiri-hondakinen parekoak bil-tzen dituen EHZ 20 kodearen ehunekoak bat datoz profil demografikoarekin.

Zuraren hondakinez gain (EHZ 03), Arabako Lurralde Historikoan, proportzionalki, gainazal-tratamenduen hondakinen (EHZ 11), disolbatzai-le agortuen (EHZ 14) eta ur-araztegitako lohien

(EHZ 19) batezbestekoak baino gehiago sortzen dira.

Gipuzkoan, prozesu termikoen hondakinez gain (EHZ 10), handia da meatoki eta harrobietako hondakinen (EHZ 01), nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinen (EHZ 02, esne-gazurrak batez ere), ehungintzako hondakinen (EHZ 04), mekanizazio-prozesuetako hondakinen (EHZ 12) eta ontzi-hondakinen (EHZ 15) ekoizpena.


Azkenik, Bizkaian nabarmena da industria petro-kimikoaren hondakinen (EHZ 05), kimika ez-orga-nikoko industriaren hondakinen (EHZ 06), lurzoru




**5. irudia.** Lurralde Historikoen eta EHZ kategorien arabera hondakin-kantitateak (tona/urte).








6. irudia. EHZ kategoria bakoitzeko kudeaketa-motei dagokien banaketa (ehunekotan).



7. irudia. Lurralde historikoen eta kudeaketa-motaren arabera hondakin-kantitateak (tona/urte).





**8. irudia.** Kudeaketa-motaren eta hondakin-motaren araberako hondakin-kantitateak (tona/urte).

Ezabatzeko tratamenduak sektore hauetan erabiltzen dira batez ere: kimika ez-organikoa (EHZ 06) eta kimika organikoa (EHZ 07) eta, batez ere, pinturak eta bernizak (EHZ 08), lurzoru poluituak (EHZ 17) eta hondakin-urak (EHZ 19).

Bestalde, birziklatzea da lehenbiziko aukera hondakin hauentzat: nekazaritzako eta abeltzaintzako hondakinak (EHZ 02), zur-hondarrak (EHZ 03), jatorri petrokimikoko hondakin hidrokarburodunak (EHZ 05), mekanizazio-hondarrak (EHZ 12), disolbatzaile agortuak (EHZ 14) eta ontziak (EHZ 15).

Araban, sortutako hondakinen (batez ere zuraren txirbil eta hondar asko sortzen da) ia bi herenak birziklatzen dira (542.046 tona; % 61,08); Euskal

Autonomia Erkidegoko batezbestekoa baino askoz ere handiagoa da kopuru hori. Bestalde, Bizkaiko (% 45,04) eta Gipuzkoako (% 44,50) birziklatze-indizeak Euskal Autonomia Erkidegokoaren antzekoak dira.

Hondakin arriskutsuak antzeko proportzioan ezabatzen eta balorizatzen dira; hondakin ez-arriskutsuei dagokienez, berriz, zur-hondarrak eta metal-txirbilak birziklatzen direnez, proportzio handiagoan balorizatzen dira ezabatu baino, altzairugintzan zepa asko sortzen den arren (gehienak zabortegetan uzten dira). Bestalde, hiri-hondakinak ezabatzen dira gehien.


## 4. EHZ kategorien araberako azterketa

### 4.1 EHZ 01: Meatoki eta harrobietako hondakinak

Meatoki eta harrobietako sektorean 25.626 tona hondakin sortu ziren 2003an. Hondakin horien % 99,98 hondakin ez-arriskutsu gisa sailkatu dira.

Hondakin horiek guztiak mineral ez-metalikoen eraldaketa fisikoko prozesuetan sortzen dira, eta gehienak Gipuzkoako enpresetan sortzen dira. Bizkaian eta Araban sektorean sortzen diren hondakinak dira iristen Euskal Autonomia Erkidegoa osoko % 5era.


Meatoki eta harrobien hondakinak birziklatu egiten dira batez ere (% 93,65) –lursailen betegarri gisa erabiltzea ere birziklatzeko modu gisa hartuta–.



9. irudia. 2003ko EHZ 01en azpikapituluen konparazioa (tona/urte).

EHZ	Mota	Deskribapena: PROSPEKZIOETATIK, MEATZEETAKO ETA HARROBIETAKO ERAUZKETATIK ETA MINERALEN TRATAMENDU FISIKO ETA KIMIKOETATIK SORTUTAKO HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 01eko %
010000				
010400	Mineral ez-metalikoen transformazio fisiko eta kimikotik sortzen diren hondakinak			
010407	HA	Mineral ez-metalikoen transformazio fisiko eta kimikotik sortzen diren substantzia arriskutsuak dituzten beste hondakinak	6,00	% 0,02
010409	HEA	Hondar eta buztinen hondakinak	24.000,00	% 93,65
010499	HEA	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	1.620,00	% 6,32
<b>GUZTIRA</b>			<b>25.626,00</b>	<b>% 100,00</b>

4. taula. 2003ko EHZ 01eko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	540	546	540	1.626	% 6,35
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea			24.000	24.000	% 93,65
Balor. energ.				0	% 0
<b>Guztira</b>	<b>540</b>	<b>546</b>	<b>24.540</b>	<b>25.626</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoa	% 2,11	% 2,13	% 95,76	% 100	

10. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 01i dagozkion kudeaketa-moten azterketa (tona/urte).

## 4.2 EHZ 02: Nekazaritzako elikagaigintzako hondakinak


2003an inbentariatutako nekazaritzako elikagaigintzako industrian 114.108,21 tona hondakin sortu ziren; horietatik 4,98 tona bakarrik dagozkie hondakin arriskutsuei (nekazaritzako hondakin kimikoak, EHZ 020108).

Esnekien azpisektorea (EHZ 0205) da garrantzitsuena sorrera-bolumenari dagokionez, sektorearen guztizkoaren % 84,50 osatzen baitu.


Lurraldeari dagokionez, Gipuzkoan, populazioaren ondorioz zegokiona (% 32) baino askoz ere hondakin gehiago sortu da (% 82,87), esne-enpresa garrantzitsu batean sortutako esne-gazurrarengatik batez ere; Bizkaian eta Araban, berriz, askoz

EHK	Mota	Deskribapena: NEKAZARITZA, BARATZEZAINZA, AKUIKULTURA, BASOGINTZA, EHIZA ETA ELIKAGAIEN PRESTAKUNTZAKO ETA EKOIZPENENKO	2003 (t)	EHZ 02ren %
020100	<b>Nekazaritza, baratzezaintza, akuikultura, basogintza, ehiza eta arrantzako hondakinak</b>			
020104	HEA	Hondakin plastikoak (bilgarriak izan ezik)	1.825,90	% 1,60
020108	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten nekazaritzako hondakin kimikoak	4,98	% 0,00
020200	<b>Haragia, arraina eta animalia-jatorriko beste zenbait elikagai prestatzean eta egitean sortzen diren hondakinak</b>			
020204	HEA	Tokian bertan tratatutako efluenteen lohiak	3.108,33	% 2,72
020300	<b>Frutak, barazkiak, zerealak, sukaldako olioak, kakaoa, kafea, tea eta tabakoa prestatzean eta egitean sortzen diren hondakinak; kontserbak, legamiak eta legamia-estraktuak egitean eta melazak egitean eta hartitzean sortzen direnak</b>			
020301	HEA	Ikuztean, garbitzean, zuritzean, zentrifugatzean eta banatzean sortzen diren lohiak	32,97	% 0,03
020304	HEA	Kontsumitzeko edo egiteko egokiak ez diren materialak	741,60	% 0,65
020305	HEA	Efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	303,79	% 0,27
020399	HEA	Beste kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak	9.004,98	% 7,89
020500	<b>Esnekien industrian sortzen diren hondakinak</b>			
020501	HEA	Kontsumitzeko edo egiteko egokiak ez diren materialak	93.695,00	82,11%
020502	HEA	Beste kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak	2.722,00	% 2,39
020600	<b>Okintza eta gozogintzan sortzen diren hondakinak</b>			
020603	HEA	Efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	765,96	% 0,67
020700	<b>Edari alkoholodunak eta alkoholik gabekoak ekoiztean sortzen diren hondakinak (kafea, tea eta kakaoa izan ezik)</b>			
020701	HEA	Lehengaiak ikuztean, garbitzean eta mekanikoki erreduzitzean sortzen diren hondakinak	1.518,80	% 1,33
020705	HEA	Efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	383,93	% 0,34
<b>GUZTIRA</b>			<b>114.108,21</b>	<b>% 100,00</b>

5. taula. 2003ko EHZ 02ko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



11. irudia. 2003ko EHZ 02ko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	1.660	8.412	4.948	15.019	% 13,16
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea	7.842	1.562	89.584	98.988	% 86,75
Balor. energ.		74	27	101	% 0,09
<b>Guztira</b>	<b>9.502</b>	<b>10.047</b>	<b>94.559</b>	<b>114.108</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoa	% 8,33	% 8,80	% 82,87	% 100	

12. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 02ri dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).

ere balio txikiagoak lortu dira (% 8,80 eta % 8,33, hurrenez hurren).


Birziklatzeko tratamenduak erabili dira batez ere (% 86,75), aipatutako esne-gazurraren zuzeneko eraginaren ondorioz. Oso hondakin gutxi balorizatu dira energetikoki, eta gainerakoa (% 13,16) ezabatu egin da.

#### 4.3 EHZ 03: Zuraren eta paperaren industriako hondakinak


Zuraren eta paperaren industrian sortutako 1.012.841,91 tona hondakinetatik, % 56,65 substantzia arriskutsurik ez duten zerrautsa, txirbilak eta zurezko bestelako ebakinak (EHZ 030105)

EHK	Mota	Deskribapena: ZURA TRANSFORMATZEAN ETA OHOLAK ETA ALTZARIAK, PAPER, KARTOIA, PAPER-OREA EGITEAN SORTZEN DIREN HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 03ko %
030100	<b>Zuraren transformazioko eta oholen eta altzarien produktuak hondakinak</b>			
030101	HEA	Azal- eta kortxo-hondakinak	99.039,00	% 9,78
030104	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten zerrautsa, txirbilak, ebakinak, zura, partikula-aulak eta txapak	6,10	% 0,00
030105	HEA	03 01 04 kodean aipatu ez diren zerrautsa, ebakinak, zura, partikula-aulak eta txapak	573.773,22	% 56,65
030199	HEA	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	1.012,90	% 0,10
030200	<b>Zura tratatzeko tratamenduetako hondakinak</b>			
030205	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten zuraren beste kontserbatzaile batzuk	2,48	% 0,00
030300	<b>Paper-orea, papera eta kartoia egitean sortutako hondakinak</b>			
030301	HEA	Zuraren eta egur-azalen hondakinak	5.734,00	% 0,57
030302	HEA	Lixiba berdeen lohiak (erreketa-lixibak berreskuratzeko) prozesuetakoak	64.409,05	% 6,36
030305	HEA	Papera birziklatzean tinta kentzeko prozesuetan sortzen diren lohiak	32.305,00	% 3,19
030307	HEA	Paper- eta kartoi-hondarretatik sortutako orearen hondakinak, mekanikoki bereziak	19.009,44	% 1,88
030308	HEA	Birziklatzeko papera eta kartoia sailkatzeko prozesutik ateratako hondakinak	1.500,00	% 0,15
030309	HEA	Kareharrizko lohien hondakinak	3.974,00	% 0,39
030311	HEA	Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 03 03 10 kodean zehazten ez direnak	196.492,88	% 19,40
030399	HEA	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	15.583,84	% 1,54
<b>GUZTIRA</b>			<b>1.012.841,91</b>	<b>% 100,00</b>

6. taula. 2003ko EHZ 03ko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



13. irudia. 2003ko EHZ 03ko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	1.043	80.431	38.718	120.192	% 11,87
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea	330.355	396.218	165.618	892.191	% 88,09
Balor. energ.			459	459	% 0,05
<b>Guztira</b>	<b>331.398</b>	<b>476.649</b>	<b>204.795</b>	<b>1.012.842</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoak	% 32,72	% 47,06	% 20,22	% 100	

14. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 03ri dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).

dira. Horrenbestez, multzo hori da inbentario bateratuan gehien sortzen den hirugarren hondakina –altzairugintzako zepak eta udal-hondakinen nahasteak doaz horren aurretik–.

Papergintzako eta kartoigintzako 339.008 tona hondakinekin osatzen da EHZ 03 kodeak inbentario bateratuari egiten dion ekarpena.

Ez dute ia hondakin arriskutsurik sortzen: 8,58 tona bakarrik.

Lurraldeari dagokionez, Araban 331.398 tona sortzen dira (Euskal Autonomia Erkidegoko guztizkoaren % 32,72), populazioaren arabera dagokionaren bikoitza, ia erabat birziklatzen diren zur-hondakin asko sortzen baita. Horrek asko handitzen du lurralde historiko horretako hondakin guztietarako birziklatze-indizea (% 61,08).

Hondakinen izaera dela-eta, batez ere birziklatu egiten dira (% 88,09); hondakinen % 11,87 ezebatzen da eta % 0,05 besterik ez da energetikoki balorizatzen.


#### 4.4 LER 04: EHZ 04: Ehungintzako eta larrugintzako hondakinak

Ehungintzak eta larrugintzak ez dute eragin handirik *inbentario bateratuan*; izan ere, 4.446,63 tona hondakin besterik ez da sortzen sektore horretan, eta ez dira arriskutsuak.

Hondakin gehienak ehungintzaren azpisektorean (EHZ 0402) sortzen dira; larrugintzako hondakinak, berriz, sektore osoaren % 10 besterik ez dira.

Lurraldeei dagokienez, Gipuzkoan sortzen da hondakin gehien (% 80,61), eta, gainerakoak, proportzio berean sortzen dira Araban eta Bizkaian.


Hondakin-mota hau zabortegietan uzten da batez ere (% 58,62); baina, kontuan hartu behar da % 34,41 energetikoki balorizatzen dela. % 6,97 besterik ez da birziklatzen.



15. irudia. 2003ko EHZ 04ko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).

EHK	Mota	Deskribapena: EHUNGINTZAN ETA LARRUGINTZAN SORTUTAKO HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 04ko %
040000				
040100		<b>Larrugintzan sortutako hondakinak</b>		
040101	HEA	Kareztatze-prozesuko larru-barrenak	445,12	% 10,01
040109	HEA	Jantzigintzan eta akaberan sortzen diren hondakinak	0,40	% 0,01
040200		<b>Ehungintzan sortutako hondakinak</b>		
040220	HEA	Efluenteen in situ tratamenduaren lohiak, 04 02 19 kodean aipatu ez direnak	1.783,00	% 40,10
040221	HEA	Prozesatu gabeko ehun-zuntzen hondakinak	1.530,00	% 34,41
040222	HEA	Prozesatutako ehun-zuntzen hondakinak	688,11	% 15,47
<b>GUZTIRA</b>			<b>4.446,63</b>	<b>% 100,00</b>

7. taula. 2003ko EHZ 04ko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	256	296	2.055	2.607	% 58,62
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea	132	178		310	% 6,97
Balor. energ.			1.530	1.530	% 34,41
<b>Guztira</b>	<b>388</b>	<b>474</b>	<b>3.585</b>	<b>4.447</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoa	% 8,72	% 10,67	% 80,61	% 100	


16. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 04ri dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).

#### 4.5 EHZ 05: Petrolioaren, gas naturalaren eta ikatzaren industriako hondakinak

Erregai fosilak prozesatzeko sektorea Bizkaiko findegi batek bakarrik osatzen du. Jarduera honetako prozesuetako hondakin espezifikoak arriskutsuak dira; bestalde, sortzen diren hondakin ez-arriskutsuak (adibidez, katalizatzaileak, isolatzaile-hondarrak, ikatz aktiboaren hondarrak, etab.) ez dira sektore honetakoak bakarrik, beraz, EHZren beste kategoria batzuetan zenbatzen dira.

2003an, tanga-hondoetan lohi gehiago sortzen dela detektatu da (mantentze-eragiketa logistiko jakin batzuen ondorioz gertatzen da hori). Hala, 8.626,27 tona sortzen dira guztira.


Sortzen diren hondakinen % 78,59 birziklatzen da, batez ere *in situ* desortzio termikoaren bidez.



17. irudia. 2003ko EHZ 05eko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).

EHK	Mota	Deskribapena: PETROLIOA FINTZEAN, GAS NATURALA ARAZTEAN ETA IKATZARI TRATAMENDU PIROLITIKOA EGITEAN SORTZEN DIREN HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 05eko %
050000				
050100	Petrolioaren fintzean sortutako hondakinak			
050103	HA	Tanga-hondoetako lohiak	1.159,27	% 13,44
050104	HA	Alkil azidoen lohiak	317,80	% 3,68
050109	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenten in situ tratamenduaren lohiak	7.110,00	% 82,42
050115	HA	Iragazte-buztin erabiliak	39,20	% 0,45
<b>GUZTIRA</b>			<b>8.626,27</b>	<b>% 100,00</b>

8. taula. 2003ko EHZ 05eko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea		1.842		1.842	% 21,36
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea		6.779		6.779	% 78,59
Balor. energ.		5		5	% 0,05
<b>Guztira</b>	<b>0</b>	<b>8.626</b>	<b>0</b>	<b>8.626</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoa	% 0	% 100	% 0	% 100	

18. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 05i dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).



#### 4.6 EHZ 06: Prozesu kimiko ez-organikoen hondakinak


Prozesu kimiko ez-organikoei dagokien EHZ 06 kodeari dagokionez, azetilenoa ekoizteko prozesuan sortzen den kaltzio hidroxido hondarra da hondakin nagusia (6.741,66 tona; % 64,67).

Bigarrenik, eta hondakin ez-arriskutsu nagusi gisa, aipatzekoak dira hondakin ez-organiko generikoen 1.005,79 tonak (EHZ 061399) –ezin izan dira zehaztasun handiagoz kodetu–.




EHK 060000	Mota	Deskribapena: PROZESU KIMIKO EZ-ORGANIKOETAKO HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 06ko %
060100	<b>Azidoen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
060101	HA	Azido sulfurikoa eta azido sulfurosoa	6,50	% 0,06
060102	HA	Azido klorhidrikoa	36,71	% 0,35
060104	HA	Azido fosforikoa eta azido fosforoso	52,99	% 0,51
060105	HA	Azido nitrikoa eta azido nitrosoa	6,60	% 0,06
060106	HA	Beste zenbait azido	309,64	% 2,97
060200	<b>Baseen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
060201	HA	Kaltzio hidroxidoa	6.741,66	% 64,67
060203	HA	Amonio hidroxidoa	8,72	% 0,08
060204	HA	Potasio hidroxidoa eta sodio hidroxidoa	189,09	% 1,81
060205	HA	Beste zenbait base	706,93	% 6,78
060300	<b>Gatzen, haien disoluzioen eta oxido metalikoen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
060311	HA	Zianuroak dituzten gatz solidoak eta disoluzioak	65,29	% 0,63
060313	HA	Metal astunak dituzten gatz solidoak eta disoluzioak	44,76	% 0,43
060315	HA	Metal astunak dituzten oxido metalikoak	178,38	% 1,71
060400	<b>06 03 kodean aipatzen ez diren metalak dituzten hondakinak</b>			
060403	HA	Artsenikoa duten hondakinak	38,67	% 0,37
060404	HA	Merkurioa duten hondakinak	0,86	% 0,01
060405	HA	Bestelako metal astunak dituzten hondakinak	92,12	% 0,88
060500	<b>Efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak</b>			
060502	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	12,75	% 0,12
060503	HEA	06 05 02 kodean aipatzen ez diren efluenteen <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	573,54	% 5,50
060600	<b>Sufrea duten prod. kim. fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak, sufreaken prod. kim. eta desulfurazio-prozesuetako hondakinak</b>			
060602	HA	Sulfuro arriskutsuak dituzten hondakinak	306,14	% 2,94
060800	<b>Silizioaren eta haren deribatuen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
060899	HEA	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	19,26	% 0,18
061300	<b>Beste kategorietan zehaztu gabeko prozesu kimiko ez-organikoetako hondakinak</b>			
061303	HA	Ikatzezeko beltza	29,08	% 0,28
061399	HEA	Beste kategoria batean zehaztu gabeko hondakinak	1.005,79	% 9,65
<b>GUZTIRA</b>			<b>10.425,46</b>	<b>% 100,00</b>

9. taula. 2003ko EHZ 06ko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



19. irudia. 2003ko EHZ 06ko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	812	8.072	1.441	10.325	% 99,04
Erraustea				0	% 0
Birziklatzea	62	26	11	100	% 0,96
Balor. energ.				0	% 0
<b>Guztira</b>	<b>874</b>	<b>8.099</b>	<b>1.453</b>	<b>10.425</b>	<b>% 100</b>
Ehunekoak	% 8,38	% 77,68	% 13,93	% 100	

20. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 06ri dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).

Bizkaian dago hondakin horren ekoizle nagusia, eta, horregatik, lurralde historiko horretan daude EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EHZ 06ko guztizko hondakinen % 77,68.

Sortutako hondakinen izaeraren ondorioz, hondakinak ezabatzeko tratamendu fisiko-kimikoak erabiltzen dira batez ere (% 99,04).

#### 4.7 EHZ 07: Prozesu kimiko organikoetako hondakinak

2003an, kimika organikoaren sektorean 21.624,23 tona hondakin inbentariatu ziren.

Hondakin ez-arriskutsuen ehunekoa (% 53,25) hondakin arriskutsuena baino zertxobait handiagoa da. Lehenbizikoak plastikoaren, kautxuaren eta zuntzen azpisektoreari dagozkio (EHZ 0702)

–sektore horretan sortzen da hondakin gehien–, eta, hondakin arriskutsuak, berriz, hainbat ekoizpen-familiatan sortzen dira.


Lurraldeei dagokienez, populazioaren arabera dagokiona baino hondakin gehiago sortu da Araban (% 27,04).

Ezabatzekeo tratamenduak erabiltzen dira gehien (% 79,51), hondakinaren izaeraren ondorioz.


EHK	Mota	Deskribapena: PROZESU KIMIKO ORGANIKOETAKO HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 07ko %
070100		<b>Oinarrizko produktu kimiko organikoen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>		
070101	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	2.192,60	% 10,14
070103	HA	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak	1,67	% 0,01
070104	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	165,53	% 0,77
070107	HA	Erreakzio- eta distilazio-hondakin halogenatuak	41,29	% 0,19
070108	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	320,31	% 1,48
070110	HA	Beste zenbait iragazte-opil eta xurgatzaile erabiliak	58,78	% 0,27
070111	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenten <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	110,89	% 0,51
070199	HEA	Beste kategoriatan zehaztu ez diren hondakinak	3,46	% 0,02
070200		<b>Plastikoen, kautxu sintetikoaren eta zuntz artifizialen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>		
070201	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	320,97	% 1,48
070203	HA	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak	7,00	% 0,03
070204	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	53,74	% 0,25
070207	HA	Erreakzio- eta distilazio-hondakin halogenatuak	2,50	% 0,01
070208	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	648,28	% 3,00
070210	HA	Beste zenbait iragazte-opil eta xurgatzaile erabiliak	98,16	% 0,45
070211	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenten <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	221,60	% 1,02
070212	HEA	07 02 11 kodean zehazten ez diren efluenten <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	1.966,45	% 9,09
070213	HEA	Plastiko-hondakinak	4.501,34	% 20,82
070299	HEA	Beste kategoriatan zehaztu gabeko hondakinak	5.044,43	% 23,33
070300		<b>Tindagai eta pigmentu organikoen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak (06 11 kategoriakoak izan ezik)</b>		
070304	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	0,63	% 0,00
070308	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	1,06	% 0,00
070311	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenten <i>in situ</i> tratamenduaren lohiak	33,68	% 0,16
070400		<b>Produktu fitosanitario organikoen (02 01 08 eta 02 01 09 kodeetakoak izan ezik), zuraren kontserbagarrien (03 02 azpikapitulukoak izan ezik) eta beste biozida batzuen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>		
070401	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	14,58	% 0,07
070408	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	3,16	% 0,01
070410	HA	Beste zenbait iragazte-opil eta xurgatzaile erabiliak	84,06	% 0,39
070500		<b>Farmazia-produktuen formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>		
070501	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	13,19	% 0,06
070503	HA	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak	2,89	% 0,01
070504	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	13,54	% 0,06
070507	HA	Erreakzio- eta distilazio-hondakin halogenatuak	4,46	% 0,02
070508	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	17,70	% 0,08

EHK	Mota	Deskribapena: PROZESU KIMIKO ORGANIKOETAKO HONDAKINAK	2003 (t)	EHZ 07ko %
070000				
070600	<b>Koipeen, xaboi, detergenteen, desinfektatzaileen eta kosmetikoen formulazio, fabrikazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
070601	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	949,18	% 4,39
070603	HA	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak	1,60	% 0,01
070604	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	51,53	% 0,24
070608	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	729,21	% 3,37
070610	HA	Beste zenbait iragazte-opil eta xurgatzaile erabiliak	98,04	% 0,45
070700	<b>Kimika xeheko produktu kimikoen eta beste kategoria batean zehaztu gabeko produktu kimikoen fabrikazio, formulazio, banaketa eta erabilerako hondakinak</b>			
070701	HA	Garbiketa-likidoak eta likore ama urtsuak	237,57	% 1,10
070703	HA	Disolbatzaileak, garbiketa-likidoak eta likore ama organohalogenatuak	4,21	% 0,02
070704	HA	Beste zenbait disolbatzaile, garbiketa-likido eta likore ama organiko	58,55	% 0,27
070707	HA	Erreakzio- eta distilazio-hondakin halogenatuak	27,52	% 0,13
070708	HA	Beste hainbat erreakzio- eta distilazio-hondakin	2.663,81	% 12,18
070710	HA	Beste zenbait iragazte-opil eta xurgatzaile erabiliak	18,70	% 0,09
070711	HA	Substantzia arriskutsuak dituzten efluenteen in situ tratamenduaren lohiak	866,36	% 4,01
<b>GUZTIRA</b>			<b>21.624,23</b>	<b>% 100,00</b>

10. taula. 2003ko EHZ 07ko kantitateak EHZ kodearen arabera (6 digitu) (tona/urte).



21. irudia. 2003ko EHZ 07ko azpikapituluen konparazioa (tona/urte).



Kudeaketa	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira	%
Ezabatzea	4.660	8.222	4.311	17.193	% 79,51
Erraustea		6	41	47	% 0,22
Birziklatzea	1.069	895	1.936	3.900	% 18,04
Balor. energ.	118	366		484	% 2,24
<b>Guztira</b>	<b>5.847</b>	<b>9.489</b>	<b>6.288</b>	<b>21.624</b>	<b>% 100</b>
<b>Ehunekoak</b>	<b>% 27,04</b>	<b>% 43,88</b>	<b>% 29,08</b>	<b>% 100</b>	

22. irudia. Jatorri geografikoaren eta EHZ 07ri dagozkion kudeaketa-moten azterketak (tona/urte).

#### 4.8 EHZ 08: Pinturen, bernizen eta tindagaien hondakinak

Euskal Autonomia Erkidegoan 2003an sortutako 8.428,75 tona pintura-, berniz- eta tindagai-hondakin hiru laurden (% 75,10) arriskutsuak dira. Beste laurdena estalduretako harea-hondarrak dira batez ere (EHZ 080201). EHZ 08: Pinturen, bernizen eta tindagaien hondakinak


Lurraldeei dagokienez, Bizkaian, demografiaren arabera dagokion hondakin-kantitatea sortzen da gutxi gorabehera (% 52,23). Nolanahi ere, Araban, dagokion erreferentzia-tasa baino gehiago sortzen da (% 22,40), Gipuzkoaren aurretik.

Hondakin-motaren ondorioz, ezabatzeko tratamenduak erabiltzen dira nagusiki (% 80,50).




